




CC OO
Kutxabank
atal
sindikala

ccoo@kutxabank.es
kutxabank@servicios.ccoo.es

<http://www.ccoo-servicios.es/kutxabank/>

Zk. 3

2016ko ekaina

HAZIA



EPSV

Errentagarritasuna



H
A
Z
I
A

HAZIAren urteko errentagarritasuna maitzeko itxieran %0,53koa zen, baina burtsako eboluzioak ondorengo 10 egunetan jarri du balio negatibo antzean. Hala ere, interesatu behar zaigu bereziki urteko itxierakoa da, eta hau, burtsa gehiago mugitzen ez bada %1 izango litzateke.(Eurostoxx, eguneko itxiera: 2853).

Nola eboluzionatu dezake HAZIAren errentagarritasunak?

Horren estimazioa egiteko, kontuan hartu behar dugu nola inbertitzen den gure ondarea: errenta finkoan %75 eta aldakorrean %25. Azken honetan, denak ez dira fondoak edo akzioak, izan ere arrisku-kapitalean partaide-kuotak daude. Baina, sinplifikatzeagatik, den-denari errenta aldakorra deituko diogu.

Errenta aldakorren eboluzioa aurreikusterik ez dagoela onartuta ere, HAZIAren errenta finkoaren errentagarritasunaren bilakaera izango du ardatz, azken emaitzarako erraza eta garrantzitsuagoa den aspektua.


Gaur, errenta finkoaren etekina %2,97an dago (batezbesteko TIRa), ondarearen %75a dela kontuan edukita, errenta finkoak errentagarritasunari egiten dion aportazioa gutxi gorabehera urteko %2,2a izanik. Errentagarritasuna areagotzea edo gutxitzea errenta aldakorren urteko emaitzen menpe dago, bere efektua negatiboa denean, eratorritako seguruek leuntzen dutela.

2010eko maiatzean, HAZIA errenta finkoaren batezbesteko TIR delakoak %5a gainditu zuen ; 2013an %4aren gainetik mantendu zen eta 2015ean %4tik behera jaitsi zen. Gaur %3aren azpitik gaude.

Nola ikusten ote da orduan etorkizuna ? Gaur egun berrinbertitzeko dauden interes-tasek errenta finkoaren errentagarritasunaren erorketa iragartzen dute, eta aldi berean, HAZIArena ere bai.

Honako grafikoa epemuga guztiak %0an berrinbertitu direla pentsatuz egin da, eta horrek dakar 2020an %1,5eko eta 2021ean %1eko batezbesteko TIRa.

Errenta finkoaren diru-zorroaren TIR



Dena dela, %0ko epemugako berrinbertsioetan oinarritzen den eboluzio hau errealista ote da?

Jakina zehatza ez dena, baina sinestea kostatzen zaigun arren, errealitatera asko hurbiltzen da. Ikus ditzagun azken berrinbertsioak.

Eragiketa	Balorea	Epemuga	Zenbatekoa	TIR
Erosketa	Enel 2018 Bonua	2018/02/20	4.156.833 €	0,08
Erosketa	General Motors 2020 Bonua	2020/08/18	650.000 €	1,17
Erosketa	Citigroup bonu higikorra	2021/05/24	4.000.000 €	0,57 (Eur3h+83)
Erosketa	Caruna Networks 2013 Bonua	2023/05/24	999.010 €	1,52
Erosketa	Bankia 12 h. gordailua	2017/05/18	15.000.000 €	0,20
Erosketa	RCI Bank 2019 Bonua	2019/07/10	1.957.491 €	0,42
Erosketa	AIG 2023 Bonua	2023/06/08	1.490.340 €	1,60
Guztira errenta finkoko erosketak			28.253.674 €	0,39
Irteerak prestazioengatik			714.843 €	
+				
Aurreko komiteari jakinarazitako eragiketak			24.210.511 €	
Plana guztira			53.179.027 €	

Azken berribertsioen %0,39ko batezbesteko TIRa aurreko txostenean %0,57koa izan zen. Eta %0,70koa honen aurrekoa (2016ko otsaila). Baina gainera gerora gerta daiteke orain erretribuzio gabekoak diren saldoak edukitzeagatik baino ez bada kobratuko dizkigutela, Europako Banku Zentralak bankuei egiten dien bezala.

Esan dezakegu, 2021ean gutxi gora behera orientazio moduan, %1eko batezbesteko TIRarekin errenta finkoa, HAZIAren %0,75aren gainera legokeen errentagarritasuna edukiko genukeela, burtsaren kotizazioa mugituko ez balitz urtarilaren 1eko kotizazioarekiko. %0,5eko errentagarritasun negatiboa Eurostoxx urtean %5 jaitsiko balitz, eta %2ko positiboa errenta aldakorak %5eko ekarpena egingo balu (gainbalioak+dibidenduak).

Egoera honen aurrean, zer egin daiteke? Bi aukera ditugu:

1. Onartzea, arrisku posizioetan garrantzizkorik aldatu gabe, errenta aldakorrean inbertsioa areagotu gabe eta, beraz, errentagarritasun txikiko estimazio hauek onartuz. Aurreikuspen hauek "HAZIAren saldoen eskuratze-balioa mantendu" delako helburua betetzen dute, izan ere berrinbertsio tipo baxu hauek inflazio txikiekin jarraituko dute, baina psikologikoki onartzeko zailak dira estimazioak, batez ere, orain arte ezagutu dugun ohiko garaia askoz ere bikainagoa izan delako.



2. Arriskua areagotu errentagarritasun handiagoa lortzeko.

Erraza da suposatzea urte gutxi barru bi posizio hauen arteko eztabaida sortuko dela, bazkideak eta hauen ordezkariak HAZIAko Gobernu Batzordeetan aurrez aurre jarriko dituen eztabaida alegia. Iraganean ere egon zen eztabaida, gaur egun aparkaturik dagoena, baina errentagarritasun baxuekin areagotuko dena segurutik. Eztabaida horretan inork ez du arrazoirik, ezta hutsik ere egiten: gauza da bakoitzaren egoeraren arabera – itxaropenari edo arriskuari beldur izan ala ez- aukera baten edo bestearen alde egiten duela beste barik.



2012an, CCOO sindikatuko ordezkariok HAZIAren barruan bigarren plan bat sortzeko proposamena egin genuen, baina proposamenari BBK-ko eta beste sindikatu batzuetako ordezkariak uko egin zioten. Urte horren bukaeran CCOO k HAZIArentzat ezarritako helburuen artean hauexek egon ziren:

- ▶ 1989az gero sartutako bazkideen ekarpenak borondatezko bihurtu.
- ▶ HAZIAren independentzia mantendu Kutxabankeko gainontzeko langileen EPSV-BGAE Borondatezko Gizarte-Aurreikuspeneko Erakundearen aldean.
- ▶ Orain arteko inbertsio politika mantendu
- ▶ Beste plan bat sortu arrisku handiagoarekin, eta beraz teoria mailan epe luzean errentagarritasun handiagoekin, horrela nahi duenak, borondatez, arrisku gehiago har dezala eta saldoak osorik edo zatika batetik bestera pasa ditzala.

Lehen bi helburuak, egindakotzat eman daitezke. Esan daiteke inbertsio politikan dagoen helburua – *“IPC-KPI Kontsumoko Prezioen Indizea gailentzearena eta epe laburrean eta epe luzean errentagarritasun egonkorra eta orekatua lortzearena, beti ere ahal den neurrian urteko errentagarritasunetan banaketa handiak ekidinez eta era berean errentagarritasun negatiboko urtealdiak saihestuz”* - arrakastaz lortu dela, 2013ko urtariletik 2016ko urtarrilera arteko IPC-KPI delakoa negatiboa (INEren ustez -1,4) izan delako eta tarte horretan bertan, HAZIAk hurrenez hurren %7,5eko, %4,2ko eta 3,9ko urteko errentagarritasunak eman dituelako.

CCOO



2016

Baina oraindik ere helburuetako azkena betetzeko dago: bigarren plan baten sorkuntza. Gaur egun presarik ez dauka helburu honek, hurrengo urteari begira ere ez, baina horren gaineko gogoeta egin behar dugu. CCOO sindikatuko ordezkariok bere garaian egindako proposamenari uko egin zioten beste sindikatuetaordezkariak analizatu beharko lukete lerro hauetan azaldutako etorkizuna, eta horrekin batera, beste edozein EPSV-BGAEtan egiten den bezala, gure diruaren inbertsioei buruz diren kontrajarritako ikuskerak muturrera ez eramateko bideak jorratzeko alternatibak bilatu beharko lituzkete.



Diru-bilketako administrazio atala (d.a.a.)
Uribitarte kalea, 4 - 48001 Bilbao
Tfnoa.: 94 424 34 24 - Faxe: 94 424 36 12
Helbide elektronikoa: mortega@euskadi.ccoo.es

A KODEA

Afiliazio Alta ☐
Datu Aldaketa ☐

CCOOn AFILIATZEKO ESKAERA ORRIA

DATU PERTSONALAK

N.A.N.-A.I.Z.	L	ABIZENAK	IZENA	
BIDE M.	BIDEAREN IZENA, ATARIA ETA SOLAIRUA		POSTA KODEA	HERRIA
JAIOTEGUNA	HERRIALDEA/NAZIONALITATEA		SEXUA	LANBIDEA
TELEFONO FINKOA	TELEFONO MUGIKORRA	HELBIDE ELEKTRONIKOA	EUSKARA MAILA	
			EZ	BAXUA
			ERTAL	ALTUA

DATU SINDIKALAK

AFILIAZIO FITXA	ALTAREN ARRAZOIA	ALTAREN JATORRIA	LAN EGOERA
-----------------	------------------	------------------	------------

ENPRESAREN DATUAK

ENPRESAREN I.F.Z.	GIZARTE SEGURANTZAKO ZKIA.	ENPRESA/LANTOKIAREN IZENA		
BIDE M.	BIDEAREN IZENA. HERRIA		POSTA KODEA	LANTOKIA
ENPRESAREN JARDUERA NAGUSIA		FEDERAZIOA	SEKTOREA	
LANTOKIKO TELEFONOA	KATEGORIA PROFESIONALA	HITZARMENA	KONTRATU MOTA	

KUDEAKETA DATUAK

KOBRATZEKO MODUA	KOD.	KOBRATZEKO LEHEN HILEA	KUOTA MOTA	KOD.	HILEKO ZENBATEKOAREN
ERAKUNDEAREN ZIGILU ETA SINADURA		BESTE DATU ETA OHAR BATZUK			

Izaera Pertsonaleko Datuen Babeserako Lege Organikoaren arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak CCOOren titulartasuneko fitxategi batetara erantsi direla. Fitxategi hau Konfederazioko, zure lantokia dagoen herriaren arabera lurraldeko batasuneko, lan egiten duzun enpresako sektorearen arabera federazioko, baita -kasu guztietan bezala- CCOOko Konfederazio Sindikaleko fitxategiekin osatuta dago. Horien guztien helburua zure datuen erabilerarekin afiliaturekiko harremana mantentzea da. Zure datuetara sartu, hauek zuzendu, bertan behera utzi eta aurkakotasuna agertu dezakezu, NANaren fotokopiarekin goian aipatutako helbidera idatzi bat bidalita.

☐ Baimena ematen diot CCOOko K.S.ari ordaindutako kuoten inguruko datuak dagokion Lurralde Ogasunari emateko, PFEZan zergak arintzeko helburuarekin.

AFILIATUAREN SINADURA

ZORDUNTZE ZUZENETIKO HELBIDERATZE AGINDUA SEPA

Helbideratze Agindu honen eskabidea sinatzearekin baimena ematen diozu (A) CCOO Diru-Bilketa Administrazio Atalari zeure finantza entitateari zure kontuan kargatzeko aginduak bidaltzeko eta (B) zure finantza entitateari dagozkion kopuruak zure kontuan kargatzeko CCOO Diru-Bilketa Administrazio Atalaren aginduen arabera. Zure eskubideen parte moduan, zure finantza entitatearekin hitzartutako kontratuko baldintza eta terminoekin bat eginda zure finantza entitateak egindako diru-itzulketa egiteko eskubidea daukazu. Diru-itzulketa hori zure kontuan kargatu denetik 8 asteko epe barruan eska dezakezu.

Zordunaren Datuak

Izena						
Helbidea						
	P.K.	Herria			Herrialdea	
Kontua	Iban	Entitat.	Sukursal.	KD	Kontua	SWIFT BIC
BANKU ENTITAREAREN IZENA					HELBIDEA	

Hartzekodunaren Datuak

Izena	CCOO UNIDAD ADMINISTRATIVA DE RECAUDACIÓN (UAR)					
	C/ CARACAS, 6 - 1º EXT. DERECHA. 28010 MADRID (ESPAÑA)					
Ordainketa m.	Aldizkakoa	Bakarra	Kontzeptua	Eskaera sinatu den herria		Data
	x		KUOTA SINDIKALA			
NAN edo AIZ						Sinadura

Oharra: Zure entitatean helbideratze agindu honi dagozkion eskubideen inguruko informazioa eskura dezakezu.